

Diasporako sareen garrantzia diplomazia publikoan: euskal kasua aztergai

Maialen Goirizelaia¹, Patricia Barron San Blas²

¹Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle agregatu eta ikertzailea

²Euskal Herriko Unibertsitateko doktorego aurreko ikertzailea

Diasporako sareek aberria eta diaspora lotzen dituzte, bitartekari-funtzioa betez. Mundu-mailan hainbat diasporako sare topa daitezke, eta sare horien konexioei esker era askotako harremanak sortu daitezke. Harreman horiek, askotan, harreman transnazionalak izaten dira. Transnazionalismoak pertsonak edo erakundeak lotzen ditu nazio-estatuaren mugak geografikoki, kulturalki eta politikoki gaindituz. Euskal kasuan ere, diasporako sareak sortu izan dira, eta horietatik harreman transnazionalak eratu dira. Alde batetik, modu organiko eta natural batean sortutako diasporako sareak aztertuko dira, hau da, izen hori izan gabe, saregintzan eragin handia izan dutenak. Bestalde, erakunde, elkarte eta gobernuen ekimenez sortu diren diasporako sareen azterketa egingo da. Bi kasuetan, sare horiek nola eta zein helbururekin sortu ziren aztertuko da eta etorkizunari begira ondorio nagusi batzuk aterako dira.

GAKO-HITZAK: Diaspora · Euskal diaspora · Diplomazia publikoa · Diasporako diplomazia · Diasporako estrategia · Diasporako sareak.

The importance of diaspora networks in public diplomacy: the basque case

Diaspora networks serve as intermediaries that connect the homeland with its diaspora. Across the globe, numerous diaspora networks exist, and the connections they foster enable the emergence of diverse forms of relationships, many of which are transnational in nature. Transnationalism refers to the ways in which individuals and institutions establish ties that transcend the geographical, cultural, and political boundaries of nation-states. In the Basque context, diaspora networks have similarly been formed, giving rise to transnational relationships. This analysis will examine, on the one hand, organically and informally developed diaspora networks—those which, though not explicitly labeled as such, have played a significant role in the development of transnational connections. On the other hand, it will also consider networks initiated by institutions, associations, and governmental bodies. In both cases, the study will explore how and for what purposes these networks emerged, concluding with key reflections regarding their future prospects.

KEY WORDS: Diaspora · Basque diaspora · Public diplomacy · Diaspora diplomacy · Diaspora strategy · Diaspora networks.

1. Sarrera. Orain artekoak: nork eta zer

1.1. Habeak: diaspora eta euskal diaspora

Hainbat aditu saiatu dira «diaspora» kontzeptua zehazten; oro har: Brubaker, 2000, 2005; Newland eta Plaza, 2013; Safran, 1999, 2004; Clifford, 1994; Tötöyán, 2012; Butler eta Kim, 2001; Kenny, 2013; Ionescu, 2006; Georgiou, 2006. Hala ere, ez dago oraindik diaspora kontzeptuaren definizio adosturik. Diaspora hitzaren esanahia ere aldatzen joan da denborarekin, eta Brubakerrek (2005) «'diaspora' diaspora» kontzeptua erabili zuen terminoaren dispertsioa, erabilera zabala eta askotarikoa azaltzeko. Etimologikoki, «diaspora» hitza grezierazko «diaspererein»-etik dator, hau da, «hazien banaketa»-tik edo «dispertsio»-tik; hala, dispertsio kontzeptuarekiko lotura azpimarratzen du hitzak. Historikoki, diaspora terminoa judutarrei lotuta erabili izan da, eta hiztegi askok judutarren historia azaltzen dute hitza definitzean (Sheffer, 2003). Hori dela eta, kontzeptuak jatorrian konnotazio negatiboak izan ditu; hala ere, denborarekin, ikuspegi hori aldatu egin da, eta gaur egun «diaspora» hitza migratzaile talde ugari erreferentzia egiteko erabiltzen da (Karim, 2003).

Euskal diasporari buruz ari garenean, askotan, nahiz eta gizatalde berari buruz ari, euskal diaspora esan ordez, «kanpoan den euskal komunitatea» edo «euskal migrazioa» esan zaio. Esaterako, 1999. urteko Kanpoan diren Euskal Gizataldeen Bigarren Mundu Batzarrean aurkeztutako lau urteko planean honakoa jasotzen zen euskal identitateari buruz:

Identidad vasca: evitar la utilización de la palabra «diaspora», por designar pueblos que carecen de territorio (Eusko Jaurlaritzak, 1999. urteko Kanpoan diren Euskal Gizataldeen Mundu Batzarreko aktak, 2000, 59. or.).

Denboraren poderioz, «diaspora» terminoa erabiltzen hasi zen euskal kasuan ere. Gloria Toticagüena eta Pedro Oiarzabal izan ziren terminoa erabiltzeari ekin zioten lehen akademikoak. Toticagüenak bere doktorego-tesian zioenez, ohikoa zen «migrazioa» hitza erabiltzea, «diaspora» hitza erabili beharrean:

Euskal kolektibitateek transnazional diaspora mentalitatea erakusten dute, nahiz eta «diaspora» terminoa erabiltzeko ohiturarik ez izan (Toticagüena, 2000, 229. or.).

Akademian aitzindari horiek izan arren, lehenago ere erabili izan da terminoa: Carlos Garaikoetxea lehendakariak 1984an emandako hitzaldi batean «diaspora» hitza aipatu zuen (Mignaburu & Legarreta, 2016, 112. or.). Era berean, Alvarez Gilak, Angulok eta Marcilesek 2007ko Kanpoan diren Euskal Gizataldeen Mundu Batzarrean adierazi zuten: «Ya no hablamos tanto de emigrantes, como de la diáspora vasca o de la “octava provincia”».

Gaur egun, «euskal diaspora» terminoa aski hedaturik dago, bai esparru akademikoan bai era orokortu baten ere. Komunikabideek ere kanpoan bizi diren euskaldunei buruz aritzean maiz erabiltzen dute. Eusko Jaurlaritzak, adibidez, 2015. urtean Euskal Diasporaren Eguna ezarri zuen, eta nahiz eta Kanpoan den

Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzak ez duen bere burua oraindik «diaspora» terminoarekin izendatzen, gero eta zabalduago dagoen kontzeptua da.

1.2. Adarrak: diasporako diplomazia, estrategiak eta sareak

Diasporen papera betidanik funtsezkoa izan da nazioarteko harremanetan. Noyaren (2006, 5. or.) arabera, herrialde bateko etorkin-komunitateak bere diplomazia publikoaren aktiborik garrantzitsuenak dira. Antzeko ikuspegitik, Crusetek (2008) dioenez, egun telekomunikazioek, ekonomia globalak eta politika globalek betetzen dituzten funtzioak, antzina diasporako komunitateek betetzen zituzten.

Testuinguru horretan, diaspora eta diplomazia kontzeptuak uztartzen dira, diasporako diplomazia kontzeptua sortuz; immigrante-komunitateek euren jatorrizko eta hartzaile diren herrialdeen arteko harremanak sustatzeko duten papera deskribatzeko. Nahiz eta nahiko berria den kontzeptua izan, badira diasporako diplomazia kontzeptua aztertu duten hainbat ikertzaile: Ho eta McConnell (2019), Gilboa (2001), Rana (2014) eta Liam Kennedy, azken horrek 2022. urtean argitaratutako *Routledge International Handbook of Diaspora Diplomacy* lanean kontzeptuaren inguruko kapitulu garrantzitsuak bildu zituen.

Diasporako kideek sarritan «kultura-enbaxadore» gisa jarduten dute: euren jatorrizko herrialdearen irudia atzerrian sustatzen dute, eta, aldi berean, herrialde hartzailearen pertzepzioak moldatzen dituzte jatorrizkoan. Horrez gain, kanpo-harremanetarako hainbat jardueratan parte hartzen dute, besteak beste: ekarpen ekonomikoetan, kultur diplomazian, aholkularitza politikoan, merkataritza eta negozioetan, hezkuntzan eta hainbat truke motatan. Diasporako diplomaziak, beraz, funtsezko zeregina du munduko harreman politikoetan, ekonomikoetan eta kulturaletan.

Diasporako diplomazia hainbat modutan gauzatu daiteke eta horretarako tresna ugari erabiltzen dira. Ekintza horien artean daude, esaterako, harreman publikoetako ekintzak (Goirizelaia & Iturregui, 2019) eta diasporako sareak (Aikins & White, 2011; Elo *et al.*, 2020). Diasporako sareak aberria eta diaspora lotzen ditu, eta bitartekaritza-funtzioa betetzen dute (Meyer & Brown, 1999). Gaur egun, teknologia digitalaren garapenarekin, e-diasporak ere sortu dira. Ponzanesi (2020) eta Hintz *et al.* (2019) egileen arabera, e-diasporak teknologia digitalen eta datuetan oinarritutako gizarte bidez eratutako diasporako komunitateak dira. Euskal kasuan, Calzadak (2024) euskal e-diasporak aztertu ditu, fenomeno horren berezitasunak argitzeko.

Diasporako jarduera horien atzean, askotan, diasporako estrategiak daude, batzuetan erakundeek bultzatuta, eta beste batzuetan modu autonomoan sortuak. Aikins-ek eta White-k diasporako estrategiek eta diasporaren konexioek sortzen dituzten harremanak aztertu dituzte. Harreman horiek maiz harreman transnazional bihurtzen dira. Peggy Levitt eta Cecilia Menjívar dira diasporek sortutako harreman transnazionalen ikerketetan erreferente. Transnazionalismoak pertsonak edo erakundeak lotzen ditu nazio-estatu mugak geografikoki, kulturalki eta politikoki gaindituz. Transmigranteak, berriz, jatorrizko eta egun bizi diren herrialdeetako gizarteetan aldi berean inplikaturik dauden migratzaileak dira, eta bi eremuetan

inbertitzeko eta garapena bultzatzeko borondatea erakusten dute (Vertovec, 1999, 447. or.; Schiller, Basch & Blanc-Szanton, 1992).

Euskal kasuan, badaude diasporako sareak, batzuk era organiko eta natural batean sortuak, eta beste batzuk erakunde publiko zein instituzioek bultzatuak. 2024. urteko Euskal Diasporaren Nazioarteko Egunean, Imanol Pradales lehendakariak adierazi zuen bere gobernuak «estrategia globala» abiaraziko zuela Euskadirentzat, eta «Euskal Diasporak ehundutako sarea» izango zela horren oinarria. Lehendakariaren hitzetan, «jokoan daude gure nortasuna eta ongizatea».

2. Helburuak eta metodologia

Lan honen helburu nagusia da azken urteotan sortu diren diasporako sareen azterketa egitea, eta, horren bidez, Euskal Herriaren eta Estatu Batuen artean sortzen diren harreman transnazionalak aztertzea. Helburu horrek sare horien ezaugarrien, jatorrien eta eginkizunen ulermen sakonagoa bilatzen du, bai eta haien bidez sortutako interakzioen izaera eta eragina argitzea ere.

2.1. Metodologia

Ikerketa honetan, diasporako komunitateek jatorrizko herrialdearekin —Euskal Herriarekin— dituzten harreman-sareak aztertzen dira. Mario Smallek, Harvard Unibertsitateko Soziologia Saileko irakasleak, zioen bezala: «How do you know you are studying networks? Because you are studying relations» (2018). Horixe da lan honen abiapuntua: leku desberdinetan kokatutako euskaldunen eta Euskal Herriaren arteko harreman transnazionalak ikertzea.

Horretarako, tresna kualitatiboetan oinarritutako metodologia aplikatu da, ikerketaren helburuek eskatzen duten sakontasuna eta malgutasuna ahalbidetzeko.

2.1.1. Literatura-irakurketa, dokumentuak eta artxiboko datuak

Ikerketaren lehen fasean, euskal migrazioari eta diasporari buruz idatzitako literatura aztertu da: liburuak, artikuluko zientifikoak, aldizkariak, dokumentalak eta filmak, bai akademikoak bai ez-akademikoak (Hollstein, 2011). Horri esker, aurretik landu diren gaiak identifikatu ahal izan dira, eta, era berean, oraindik ikertu gabe dauden arloak antzeman dira.

2.1.2. Elkarrizketak

Ikerketa-lan honetan erabili den tekniketariko bat sakoneko elkarrizketak izan dira: hurbilketa lortzeko modurik egokiena eta ikerketa kualitatiboan metodoen artean komunena ere bai (Belotti, 2014, 69. or.). Elkarrizketak modu aproposa dira oraindik ikertu gabe dagoen gaia ezagutzeko eta pertsona konkretu batzuekin hitz egiteko aukera izateko (Hollstein, 2011, 14. or.). Olabuénagak (1996) dioen moduan, elkarrizketaren lehen ezaugarria galdetzen duen pertsonaren eta erantzuten duenaren arteko interakzioa da eta horri esker informazioa lortzeko teknika bat garatzen da bi pertsonen arteko elkarrizketa profesional baten bidez.

1. taula. Ikerketa aurrera eramateko egindako elkarrizketak.

2018. urtean	2024. urtean*
<p>Diasporako kideak</p> <p>Aztertuko diren sareen sorkuntzan berebiziko garrantzia izan duten pertsonak:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Pentsamendua Think Tank-eko arduradunetako bat – Kanpo Harremanetarako ordezkari teknikaria – Bizkaia Talent sareko sortzailea – Basque Diaspora Akademikoa sareko sortzailea 	<p>Aztertuko diren sareen sorkuntzan berebiziko garrantzia izan duten pertsonak:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Kanpo Harremanetarako ordezkari teknikaria

* Lanaren autoreak saiatu dira 2024. urtean elkarrizketa gehiago egiten baina ez da posible izan.

Elkarrizketa guztiak aurrez aurre egin dira, ordu bateko iraupena izan dute eta gerora transkribatu eta aztertu egin dira.

2.1.3. Behaketa parte-hartzailea

Lanaren autoreetako bat Bizkaia Talent-ek 2018an Bostonen antolatutako ekitaldi batean egon zen.

3. Emaitzak

Euskal diasporako sareak

Throughout periods of emigration Basques often relied on networks to maintain ties to each other and the Basque Country. Largely informal, these connections helped them create hyphenated identities (self-identifying as American and Basque, for example) as they made their way in the new settings. They regularly sent back money, goods, and ideas that heavily impacted those at home and often spurred them to migrate as well. These transnational exchanges influenced the histories of both regions and helped create the cultural brands that further delineated identities. For centuries this process continued, sped up by advances in communication and transportation (Ray & Bieter, 2015, 255. or.)

Ray-k eta Bieter-ek aipatzen dituzten harreman transnazional horietan, diasporako sareek funtsezko rola izan dute. Hainbat herrialdek onartu dute diasporako sareen sorrera eta diasporak euren herrialdeen garapenean duten garrantzia (Aikis & White, 2011; Kuznetsov, 2006). Diasporako sareek jatorrizko herriaren eta atzerrian bizi diren herritarren arteko harreman eta komunikazioa sortzen eta mantentzen

laguntzen dute. Euskal kasuan, munduan zehar dauden euskaldunen arteko harreman ekonomiko, politiko, akademiko eta kulturalak indartzeko hainbat sare sortu izan dira. Ibarretxe lehendakariak zioen bezala: «Hay que tejer una red de redes, en el campo de la economía, en el campo de la sociedad, en el campo de los anhelos, en el campo de las preocupaciones, en el campo de los proyectos» (Eusko Jaurlaritza, 2007. urteko Kanpoan diren Euskal Gizataldeen Mundu Batzarreko aktak, 2008, 18. or.).

Euskal migrazioa hasi zenetik, beti egon izan dira diasporako sareak. Sare horiek hasiera baten, laguntza-sareak (Sociedad de Socorros Mutuos), politikoen arteko loturak indartzeko sareak (Emakume Abertzale Batza Txilen, Uruguain eta Argentinan), edota etxekoekin harremanak sortzeko sareak ziren. Hasieran sortu zirenak familia eta lagun arteko harremanetatik sortu ziren. Gerora, eta diasporaren indarra ikusita, instituzioetatik ere sortu izan dira diasporako sareak.

3.1. Sare organikoak¹

Euskaldunak Estatu Batuetara migratzen hasi zirenetik komunikazio iraunkorra egon da Euskal Herriaren eta Estatu Batuetako euskal komunitatearen artean. Hasiera batean senide eta lagun arteko gutunak izaten ziren komunikazio hori mantentzeko era (gehienak artzainek idatziak, etxeko nostalgia eta esperientzia pertsonalei buruzkoak, eta haien familien eta Euskal Herriaren berri eskatzen zutenak). Urteak pasa ahala, politikarien eta ordezkarien arteko lehen mezuak agertu ziren.

Komunikazio horretatik, hainbat sare sortu dira. Sare horiek pertsonen arteko harremanetan oinarritzen ziren, baina herrialdeen/herrien/nazioen arteko harremanetan amaitzen zuten. Harreman horiek transnazionalak ziren, adibidez, Idahoko estatuaren eta Euskal Herriaren artekoak edota Miamiko kasino baten eta Bizkaiko Markina herriaren arteko harremanak. Horietatik, unibertsitateen arteko truke akademikoak, enpresen arteko harremanak edo hiri zehatz baten edo herri baten arteko harremanak sortu ziren.

3.1.1. Lehen sareak: familia eta kultura

Bierterrek (1994) euskal emigrazioa zenbait belaunalditan banatzen du. Lehen belaunaldi (1900-1940) moduan definitzen duen horretan euskal herritarrak Estatu Batuetara lan bila joan ziren, euskaraz hitz egiten zuten eta ia denek irudikatzen zuten egun batean etxera itzuliko zirela.

Estatu Batuetako Mendebaldera joan ziren gehienak artzain, esnekiekin loturiko enpresetan, egurrarekin, eraikuntzan edo lorezain gisa aritu ziren. Ekialdera joan zirenak, ordea, beste arrazoi batzuegatik joan ziren, hala nola:

Make a better life, always or most of the time was that. Because life on the baserri was very difficult and unless you inherit... and for them, they could make better life here and send money home (Goirizelaia, 2019).

1. Lan honetan ikertzen diren sare organikoak, batez ere, Euskal Herriaren eta Ipar Ameriketara bizi diren euskaldunen artean sortutakoak dira.

Mendebaldean, artzainek mendietan igarotzen zituzten hilabeteak, transhumantzia amaitu eta herrira itzultzean, lo egiteko, jateko eta sozializatzeko leku bat behar zuten. Horrela eta horregatik pentsio edo euskal ostatuak sortu ziren Estatu Batuetako hainbat estatutan. Jeronima Echevarriak «home away from home» bezala izendatu zituen (Echeverria, 1999, 240. or.). Pentsio edo ostatu haiek etxea baino askoz gehiago ziren, Johnen eta Mark Bieterren esanetan: «Pentsioa herriko eliza, herriko taberna, bankua eta osasun-zentro bihurtu zen» (John eta Mark Bieter 2003, 43. or.). Hainbat estatutan euskal hotelak topa daitezke gaur egun ere, nahiz eta asko desagertu diren topa daitezke egun taberna moduan dihardutenak, kasurako Elkoko Star Hotela edota Gardnervilleko JT Basque Bas & Dinning Room. Espazio horietan, lehen kultur sareak sortu ziren. Ander Goyoagak artikulu interesgarria² idatzi zuen 2022ko azaroan honi buruz.

Kultur sareek kultura aitzakia, mundu osoko euskal herritarrak elkartzen laguntzen dute. Euskal kulturaren presentzia oso nabarmena zen pentsioetan, herrialde berri baten egon arren euskaraz hitz egiteko, euskal musika entzun eta dantza egiteko eta euskal tradizioak bizitzeko aukera zuten. Ostatu edo pentsioak garrantzitsuak izan ziren euskal immigrazioarentzat. Estatu Batuetako hainbat lekutan egon ziren ostatuak, eta ostaturik ez zegoen lekuetan, frontoiak zeuden, kasurako Florida, Connecticut eta Rhode Island-en.

Bieterrek definitzen duen lehen garai hartan, sare nagusiak familian eta kulturaren oinarritutakoak izan ziren. Familia-sareak gutunetan, telefono-deietan eta etxera egindako bisita gutxi horietan oinarritzen ziren, eta kultura-sareak, aldiz, pentsioetan eta frontoietan sortu eta forjatu ziren.

Baina, era berean, harreman pertsonal, kultural eta familia-artekoei esker, beste era bateko harremanak sortu ziren, hala nola harreman akademikoak eta ekonomikoak edo negozio artekoak.

3.1.2. Beste sare batzuk: akademikoak eta ekonomikoak, ezagutza elkarbanatuz

Ostatu-etxeen ondoren, euskal etxeak sortu ziren: lehenik Ekialdeko Kostaldean (New York, 1913) eta gero Mendebaldean. Hori izango da Bieterrek (1994) bigarren belaunaldizat hartzen duen aldia (1949-1982). Euskal Herritik etorritako bisitariak, *Eurobasque* (Goirizelaia, 2019) izenez ezagunak, euskal etxe horiekin harremanetan jarri ziren Amerikako euskaldunak ezagutzeko eta haiekin harremanak eraikitzeko. Ikus daiteke urte horietan zehar Euskal Herriaren eta Estatu Batuen arteko hainbat sare sortu zirela.

3.1.3. Akademia

Hezkuntza- edo akademia-sarea ikastetxe/eskola, unibertsitate eta ikasleen/ irakasleen arteko harremanak sortzen eta sustatzen dituen sarea da. Ezagutza partekatzen da eta, beraz, bi herrialdeentzat onuragarria den zerbait da. Euskal/ amerikar harreman akademikoetan, sare akademiko hori sortzen eta indartzen

2. *The last room at the Basque hotel in the American West*, Ander Goyoaga, 2022ko azaroa: <https://basqueculture.eus/en/stories/society-and-traditions/the-last-room-at-the-basque-hotel-in-the-american-west>

laguntzen duten ekimenak identifikatu dira eta horien artean daude unibertsitateen arteko harremanak, programa eta elkarteen sorrerak eta truke-programak.

40ko hamarkadaren hasieran, Jose Antonio Agirre, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria, Historiako irakasle gisa aritu zen Columbiako Unibertsitatean. Garai hartan ere (1938an), Jon Bilbaok³ unibertsitate bereko Estudios Hispánicos Eskolan (Donostia, 2018, 74. or.) ikasi zuen. Horri esker, 2013. urtean, Euskal Herriko Unibertsitateak New Yorkeko AC4-Columbia Unibertsitatearekin lankidetzan, Agirre Lehendakaria Zentroa sortu zuen.

Urteek aurrera egin ahala, 1974an, Boise-Oñati Programa antolatu zen, eta horren ondorioz USAC sortu zen⁴. 2024. urteko irailean 50 urte bete ziren Boise-Oñati Programa sortu zenetik. Horren harira, irailaren 8an Eusko Jaurlaritzak antolatutako Diasporaren Egunean, Boise-Oñati Programa horretan parte hartu zuten hainbat gonbidatu zituzten eta komunikabideetan presentzia handia izan zuen ekitaldiak. Pixka bat beranduago, 1979an Euskal Ikasketen Elkartea⁵ sortu zen, zeinak Estatu Batuetako euskaldunen arteko sare akademikoa indartzen lagundu zuen.

1998an Boiseko Ikastola⁶ sortu zen, eta ordutik, bi aldeetako irakasleen eta ikasleen arteko harremanak sustatzen dira. Boiseko Ikastolara eskolak ematera joateko aukera dago eta horrek harreman transnazionalak indartzen ditu. 2003an Cenarrusa Fundazioa sortu zen. Erakunde horrek, beste gauza batzuen artean, Estatu Batuetan dauden euskal ikasketak finantzatu ditu. 2004-2005ean Boise State Unibertsitateko Euskal Ikasketak⁷ sortu ziren.

Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleen eta Estatu Batuetako hainbat unibertsitateen arteko truke-programak daude. Programa horiei esker irakasle eta ikasleak unibertsitate batetik bestera mugitzen dira eta horrela harreman akademikoak indartzen dira.

Etxepare Euskal Institutua Estatu Batuetako hainbat unibertsitatetan presente dago eta irakurletzak, katedrak eta Euskara Munduan programa kudeatzen ditu.

3. Jon Bilbaoren figura giltzarria izan zen Estatu Batuen eta Euskal Herriaren arteko harreman akademikoan. Munduan zehar bidaiatu zuen euskal liburuak aurkitzeko, Renoko (Nevada) Euskal Ikasketa Zentroan lan egin zuen, eta William Douglassekin batera *Amerikanuak: Basques in the New World* liburua idatzi zuen, euskal emigrazioaren ikasketan liburu garrantzitsuenetariko moduan aurkezten dena.

4. USAC. UPV/EHUk eta Renoko (Nevada) Unibertsitateak lankidetzan hitzarmen bat sinatu zuten 2015ean, jarduera akademiko eta osagarri jakin batzuk garatzeko asmoz. <https://usac.edu/>

5. 1979an, Mendebaldeko Kostaldeko beste leku batzuetan ere sare akademikoa hazten ari zen, bereziki Kalifornian. San Frantziskon Amerikako Euskal Ikasketa Elkartea sortu zen, irabazi-asmorik gabeko erakunde bat: «Amerikan euskal kultura, tradizioak, ohiturak eta folklorea ikertzeko eta zabaltzeko» dedikatua. Kalifornian sortu zen, baina New Yorkeko komunitateko pertsonak ere parte hartu zuten gizarte akademiko horretan, horien artean Emilia Doyagak.

6. Boiseko Ikastola ez da euskaraz irakasteko eta Idahon komunitate bat sortzeko modu bat soilik; harreman transnazionalak sustatzeko bide bat ere bada, izan ere, irakasleak Euskal Herriatik datoz. Bertan, Boiseko euskal diasporaren errealitatea ezagutzen dute, eta euskal kultura Estatu Batuetan sustatzen laguntzen dute.

7. Urtero, ikertzaileek, akademikoek, irakasleek eta ikasleek bisitatzen dute Boiseko Unibertsitatea, nagusiki diasporako kideen ekimenari esker sortutako sare transnazional batean oinarritutako hitzarmen honi esker: <https://www.boisestate.edu/basquestudies/>

Ondoren dagoen taulan ikus daiteke Etxeparek Estatu Batuetan dituen irakurletzak, katedrak eta euskara-klaseak zein unibertsitateetan eta euskal etxetan ematen diren.

2. taula. Etxepare Euskal Institutuaren presentzia Estatu Batuetan.

Etxepare Euskal Institutua		
Programa	Unibertsitatea	Izena
Irakurletzak	University of California (LA)	
	University of California (UCSB, Santa Barbara)	
	University of Illinois	
	University of Chicago	
	Boise State University (ID),	
Katedrak	Massachusetts Amherst Unibertsitatea	William A. Douglass Katedra
	Boise State Unibertsitatea	Eloise Garmendia Katedra
	Nevadako Unibertsitatea	Jon Bilbao Katedra
	Chicagoko Unibertsitatea	Koldo Mitxelena Katedra
	New Yorkeko Hiriko Unibertsitatea	Bernardo Atxaga Katedra
Euskara Munduan	San Francisco Basque Cultural Centre	
	Seattle Euskal Etxea	
	Boise Basque Centre	
	Oregon Ontario Basque Club	
	Txoko Ona (Homedale)	

Iturria: noberak egina Etxepare Euskal Institutuaren webguneko datuekin (2024).

Harreman horietaz aparte, ikasleen eta irakasleen interesetatik sortutako ikastaroak ere martxan daude. Adibidez eta beste batzuen artean, New England Basque Club-ek Harvard Unibertsitatean bultzatutako euskara-ikastaroa, zeinak Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Harvard Unibertsitatearen arteko sareak indartu dituen.

2022/2023 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitateak Eusko Jaurlaritzarekin batera Euskal Diaspora⁸ berezko titulua sortu zuen. Horrek ere lagundu du munduan zehar dauden diasporako kideen eta euskal gaietan interesa duten akademikoen arteko harremana indartzen.

Sare akademikoa harreman pertsonalengatik indartzen ari den sare bat da eta, diasporako kideei esker, gero eta konektatuago dagoen sare bat da.

8. Euskal Diaspora berezko titulua. <https://www.ehu.eus/eu/web/graduondokoak/euskal-diaspora-unibertsitate-espezializazioa>

3.2. Sare ekonomikoa

Europatik Estatu Batuetarako immigrazioa hasi zenean, sarrera nagusiak New York eta Boston izan ziren (Levitt, 1997). Hasieran sarrera hori Castle Garden-etik egiten zen (Amerikako lehen etorkinen zentroa, 1855-1890) eta ondoren Ellis Island-etik (1892-1954). Azken urte horietan hamabi milioi etorkin baino gehiago iritsi ziren Estatu Batuetara. Horien artean, euskal etorkinak ere heldu ziren. Iristean, Valentín Aguirre edo bere semeak zain egoten ziren, «Euskaldunik bada?» galdetuz. Migrante berriak identifikatzen zituzten eta Santa Lucía Ostatura (Casa Vizcaína ere deitzen zena) eramaten zituzten laguntza emateko. Batzuek bazeukaten lana mendebaldean, beraz, euren tiketak hartu eta helmugara eramango zituen tren hartzea besterik ez zuten behar. Beste batzuek, aldiz, *Mundu Berria* lana aurkitu behar zuten, eta Valentín Aguirrek horretan laguntzen zien:

Valentín Aguirre-k, entzun dudanez, bakoitzak zerbait diferente esaten du, bi etxe erosi zituen eta etxe horietatik ostatu bat egin zuen. Jendea hartzen zuen eta gelditzea erabakitzen zutenei lana eskaintzen zien (Goirizelaia, 2019).

Valentín Aguirreren lanaz aparte, badira sare ekonomiko eta lan-sare hori indartzen lagundu duten ekintzak. Hasiera baten, harreman horiek politikari eta ordezkarien bisitei esker sortzen ziren. Horien artean, kasurako, Bilbotik Boisera egindako bisitak edota lehendakariak Estatu Batuetako ordezkari politikoeekin zituen hartu-emanak zeuden. Boiseko Basque Museum and Cultural Center-en eta Boise State University-ko Albertsons liburutegian, informazio asko dago bisita horiei buruz.

Adibidez, 1978an Idahoko senatari zen Frank Church-ek Euskal Herria bisitatu zuen. 1982ko ekainaren 29tik uztailaren 6ra Cecil Andrus-ek Euskal Herria bisitatu zuen⁹. Helburua Eusko Jaurlaritzarekin harreman komertzial bat ezartzea zen eta «bi gobernuentzako aukera ekonomiko eta kulturak handitzeko, Euskal Herriaren eta Idahoko euskal komunitatearen arteko harreman natural eta historikoan oinarrituz» (Boise State Unibertsitateko Albertson Museoaren Artxibo Bereziak).

90eko hamarkadan Larry LaRocco, Pete Cenarrusa (estatu-idazkaria) eta beste politikari askok Euskal Herria bisitatu zuten bi eskualdeen arteko harremana garatzen jarraitzeko. 1992an Jose Manuel Goikoetxeak (Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza aholkularia) Idaho bisitatu zuen. Idahon patata produktu tipikoa denez, merkataritza-bisitek patata-industriaren inguruan interesa izan zuten¹⁰.

2007an John Garamendik, Kaliforniako kongresistak, Euskal Herria eta Ibarretxe lehendakaria bisitatu zituen Euskal Herriaren eta Kaliforniaren arteko harreman

9. Harreman hau bi urte lehenago hasi zen, 1980an, Bizkaiko bi ordezkari, Alberto Amorrortu Kultura sailburuak eta Jose Sabala Nekazaritza sailburuak, Idaho bisitatu zutenean. Bisita horren emaitzen artean Garaikoetxea lehendakariaren Boise bisitatzeko plangintza 1982an; Estatu Batuek Euskal Herria dituzten interesak babestea; Euskal Unibertsitatearen programaren ezarpena; J.R. Simplot Company-k Euskal Herria patata prozesatzeko planta bat ezartzeko aukera; Euskal Nekazaritzako Delegazioaren Idahorako bisita; bidaiatzea/turismo-trukea handitzea eta Euskal Herriaren eta Estatu Batuen arteko harremanen garrantziaz euskal eta espainiar prentsan egin beharreko estaldura kontuan hartzea.

10. Bisita horretan, Agro-Food Ikerketa Sailak, industrietan eta unibertsitateak harremana indartu zuten; Idahoko Nekazaritza eta Merkataritza Departamentuekin formalizatutako harremana; elikagai-industriarekin (patatak, haragia, azukrea, behiak, abereak) eta Europar inbertitzeko planen berri ematen zuten elikagai-industriarekin harremanak.

ekonomikoak aztertzeko. Horretaz aparte, Izaskun Bilbao Eusko Legebiltzarreko presidentearekin eta Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearekin bilerak izan zituen, eta Guggenheim Museoan afari batean parte hartu zuen. Politika-, akademia- eta kultura-harremanak sortzeko aukera egon zen.

Gerora, 2016an Bizkaiko merkataritza-misio batek Idaho bisitatu zuen hedapena eta langileen garapena bilatzeko. Horren ondoren, 2017ko uztailean, Idahoko 18 enpresak euskal enpresekin, ikerketa-zentroekin eta unibertsitateekin bilerak egin zituzten.

Azken urteotan ere asko izan dira sare hori indartu duten ekintzak, harreman hauek guztiak posible izan ziren eta dira, Estatu Batuetan bizi diren euskaldunen parte-hartzeagatik, diasporako diplomazia-aktore bihurtu direlako eta harreman mota hauek sortu eta indartu dituztelako.

3.3. Diasporarentzako sare instituzionalak¹¹

Hainbat gobernuk euren diasporarako estrategien barruan diasporako sareak sortu dituzte. Sare hauek hainbat helburu izan dituzte: komunikazioa indartzea, harremana sustatzea, informazioa elkarri banatzea, konektatuta egotea... sare mota hauek normalean instituzioek sortutako sareak dira eta sei sare aurkitu dira: Euskosare, Pentsamendua, Basque Global Network, Han Hemen, Bizkaia Talent eta Basque Diaspora Akademikoa.

3.3.1. Euskosare: online komunitateak

Euskosare Eusko Ikaskuntzak eta Euskomedia fundazioak 2004. urtean sortutako lehen diasporako sare ofiziala izan zen. 1996ko Euskal Gizataldeen Mundu Batzarrean, euskal diasporarekin harremanak hobetzeko beharraz eztabaidatu zen. Euskal etxeetan ordenagailuak jartzea mugarri bat izan zen Euskal Herriaren eta euskal diasporaren arteko komunikazioan. Ordutik aurrera, teknologia berriak garatu ziren eta Eusko Ikaskuntzak teknologia horiek erabiliz Euskal Herriaren eta euskal diasporaren arteko harremana indartu nahi izan zuen. 2003ko Euskal Gizataldeen Mundu Batzarrean, Euskosare sortzearen proposamena egin zuen Gonzalo Auzak (Euskosareko zuzendaria). Helburua zera izan zen: mundu osoko euskaldunen arteko komunikazioa indartzeko plataforma bat sortzea eta mundu osoko euskal komunitate orokor bat sortzea, bai eta euskal eta ez-euskal pertsona eta erakundeen arteko kultura-, akademia-, gizarte- eta ekonomia-sareak eskaintzea:

Euskal Herriko elkarte, euskal diaspora eta euskaldunen lagunen arteko komunikazio plataforma bat sortzea Interneta eta beste medio batzuen bidez, zeinetan informazioa partekatuko den, eta mundu kultural, sozial eta ekonomikoarekin lotura duen zerbitzu eta kontenidoa zabalduko den. Euskal Kolektibo Global baten existentzia, bai Euskal Herriko eta bai euskal diasporako euskaldunekin (Euskal Gizataldeen Hirugarren Mundu Batzarreko aktak, 2003, 40. or.)

11. Aipatu behar da, ikerketa honetan ez direla aztertu euskal etxeek martxan jarritako udalekuei esker sortutako harremanak eta ondorioz sareak, edota azken bi urteotan Euskal Herriatik sortutako Ateak Ireki programa. Horiek guztiek ere, sare eta harreman transnazionalak sortu dituzte, baina lan honetan ez dira aztertuko. Etorkizun batera begira aztertu beharko liratekeen truke-programak dira.

Euskal Herriaren eta euskal diasporako kide eta herrialde horietako elkarteen arteko harreman zientifiko, edukatibo, artistiko, sozial, laboral, komertzial, enpresarial eta finantziarioak handitzea. Kanpoan dauden euskaldunek duten Euskal Herriko irudia berriztu eta erreala den agenda publikoa sortzea (Euskal Gizataldeen Hirugarren Mundu Batzarreko aktak, 2003, 41. or.).

Euskosarek honakoak eskaintzen zituen:

- Webmail zerbitzua.
- Euskal produktuen denda.
- Euskal Herriko eta euskal etxeetako albisteak elkarri banatzea.
- Diasporako kideentzako datu-baseak.
- Ekintza-agenda.
- Gazteentzako online espazioak eta edukiak.
- Ikastetxeen eta haurren arteko truke-programak.
- Lana eta familia bateratzeko baliabideak.
- Informazio akademikoa eta unibertsitatei buruzko informazioa.
- Eusko Ikaskuntza, euskara eta euskal kultura-ikastaroak.
- Turismo-proposamenak.
- Boluntario-programak.
- Diasporako liderren eta negozio eta enpresen arteko trukeak.
- Euskal liburutegien eta Euskal Herriko Lagunen Ligaren arteko lotura.

Euskosare amaitu zen eta hurrengo diasporako sareak Pentsamendua Think Tank izena izan zuen eta Euskosarek baino helburu zehatzagoak zituen. Hala ere, Euskosaren lanean aritu ziren pertsona batzuek Pentsamenduan ere parte hartu zuten.

3.3.2. Pentsamendua: euskal diaspora integratzen

2007an Ibarretxe lehendakariak Euskal Global Initiative jarri zuen martxan. Pentsamendua horren barruan zegoen ideia-laboretegi bat zen, hausnarketarako espazio bat. Diasporaren parte-hartzea ezinbestekoa zen espazio horretan, globalizazioari buruz zuten ikuspuntua, analisiak eta kritikak egiteko gaitasuna, iritziak elkarri banatzeko, eta era berean eta, batez ere, euskal gizartearen alde posible zen guztia sustatzeko.

Euskal Global Initiative bost talde eta hiru ardatzetan banatutako programa izan zen. Ardatz horietako bat Pentsamendua Talde Geografikoa izan zen, non:

Seven geographic groups (North America, Central America, South America, Europe, Asia, Africa, and Dispersed Basques) made up of public figures from different fields and professions to discuss and provide their highly regarded opinions on the role Basques should play in globalization (Pentsamendua Think Tank-i buruzko informazioa dagoen dokumentua).

Beste gobernu askoren antzera, hau «VIP» edo «ELITE» diasporako sare bat zen (Goirizelaia, 2019). Sare hauetan parte hartu zuten pertsonak lobarretxe lehendakariak aukeratu zituen; ez zen irekia, eta helburuak argiak ziren: «Euskal gizarteko sektore desberdinetako iritziak sustatzea eta ondoren biltzea, diaspora sakabanatuekin barne, eta iritzi hauek Lehendakariari bidaltzea, herri hau gobernatzen laguntzeko» (Pentsamendua Think Tank-i buruzko informazioa dagoen dokumentua).

Esan genezake diasporako sare bat zela eta helburua komunikazioa trukitzea zela, baina, sare honen benetako helburua «maila altuko» sare bat sortzea zen; bertako kideak Euskal Gobernuaren politiketan lagun zezaten. Pentsamendua Taldea ofizialki 2006ko irailean sortu zen, baina urte horretako maiatzean hainbat ekintza garatzen hasi ziren jada.

Think Tank hau 2006ko urtarrilean hasi zen lanean eta 2010. urtea izan zen azken urte ofiziala, baina, beste sare askotan bezala, Pentsamenduaren bidez sortu ziren harremanak oraindik bizirik daude, eta AEBn bizi diren euskal diasporako kideek elkarrekin eta Euskal Herriarekin duten harremana mantentzen dute.

3.3.3. *Basque Global Network: Basque Country Internalisation Strategy 2020*

Basque Global Network 2014an sortu zen, 2020-2024 Euskal Herriko Nazioartekotze Estrategiaren baitan.

Iñigo Urkullu lehendakariak 2013an aurkeztu zuen New Yorken Basque Global Network proiektua. Aurkezpen horretan herri gisa garatzeko sareekin lan egitea beharrezkoa zela adierazi zuen: «Baina lan egitea sarean, biziitzea sarean, sentitzea sarean, herri gisa garatzea, sarean ere». Sare honen helburua Euskal Herriarekin nolabaiteko afinitatea zuten pertsonak sarearen parte izatea zen eta,aldi berean, Euskal Herriaren kalitatea mundu osoan zehar hedatzea.

Sarea sortu aurretik, horretan parte hartu nahi zutenen artean inkestak egin ziren. Inkestak *Euskaletxeak* buletinari¹² esker banatu ziren eta 120 erantzun jaso ziren. Erantzun guztiek sarearen sorrera eta bertan parte hartzea interesatzen zitzaizela erakusten zuten, nahiz eta gero, errealitatean ez zen horrela izan. Hasieran egin zen inkestaren emaitzen arabera, diasporako kideei gehien interesatzen zitzaizkien gaiak hezkuntza eta kultura ziren lehenengo (% 36), gizartea eta garapena ondoren (% 27), instituzioak gero (% 20) eta, azkenik, ekonomia eta enpresak (% 15). Halaber, komunikatzeko nahi zuten modua erabaki zuten; % 17k posta elektronikoa, % 11k web orria, % 8k sare sozialen erabilera, % 6k aplikazio bat eta % 59k aurreko tresnen konbinazioa nahi zuten. Hizkuntzari dagokionez, diasporako kide gehienak Latinoamerikako herrialdeetan daudenez, erantzunen % 40k espainiera izan behar zuela adierazi zuten; euskara % 27k, ingelesa % 18k eta frantsesa % 12k.

Plataformako kideek bost arlo tematiko edo talderen artean hauta zezaketen edo batean baino gehiagotan parte hartzeko aukera zeukaten: horrek, harreman personalak sustatzeaz gain, jarduerak iragartzeko, ekitaldiak partekatzeo eta materialak igotzeko aukera ere ematen zuen.

12. *Euskaletxeak* buletin digitala: https://www.euskaletxeak.eus/index.php?option=com_content&task=view&id=140&Itemid=191

Eusko Jaurlaritzako teknikari baten hitzetan, Basque Global Network-en inguruko 1.200 pertsona daude (Goirizelaia, 2019). 2.060 pertsonak jarraitzen dute Facebooken, baina 2017tik ez dute ezer argitaratu.

Azken eguneraketak zeintzuk izan ziren jakiteko helburuarekin, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako teknikari batek ondorengo esan zuen:

Horrelako sareak, kolektibitateen esparruan, ahaleginak egin arren, ez du eraginkortasun nahikorik lortu, eta kontratatutako enpresek, plataforma kudeatzeko eta community manager lana egiteko, azken urteetan aldaketak izan dituzten arren, horrek ez du ekimenaren arrakasta bermatu. Tresna martxan jartzeko eta bultzatzeko baliabide ekonomiko garrantzitsuak erabili baziren ere, porrotetako bat izan zen Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuen (Hezkuntza, Unibertsitateak, Industria eta abar) inplikazio falta; sail hauek, nazioartekotze-programak eta bekak kontuan hartuta, beren sare propioak izan beharko lituzkete zalantzarik gabe.

3.3.4. *Han Hemen*

Basque Global Network ekimenak harrera eskasa izan arren (mila pertsona inguruk izena eman zuten, parte-hartze oso txikiarekin) (Eusko Jaurlaritzako teknikaria, elkarrizketa pertsonala, 2024), Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak 2020-2024 Gobernu Programan berriro sartu zuen, 138. konpromisoan, 2. ekimen gisa: «Basque Global Network sare birtuala sendotu eta zabaldu, mundu mailako Euskal Komunitate Globala benetan osatzeko» (Eusko Jaurlaritzako teknikaria, elkarrizketa pertsonala, 2024)

Han Hemen plataforma digital eta global gisa aktibatu zen, munduko euskaldunei zuzenduta zegoen eta horren helburua konexioak sortzea, informazioa eta baliabideak trukatzea, eta esperientziak partekatzea zen. Helburu horretaz aparte, Han Hemen-en interes nagusietariko bat zen euskal herritarrek globaltasuna nola bizitzen zuten entzutea eta azaltzea. Kokapen geografikoa edozein izanda, nazioarteko ikuspegia euskal begirada batetik aztertzea eta bizitzea proposatzen zuen eta du. Marian Elorzaren hitzetan (momentu horretan Kanpo Harremanetarako idazkari nagusi zena):

Diaspora tradizionala ondo ezagutzen dugu eta diaspora berriarekin konektatu nahi dugu, pertsonen partaidetzari irekitako entzute aktibo batean. Haiiek dira protagonistak. Han eta hemen, zauden tokian zaudela, zurekin kontatu nahi dugu. Horregatik kaleratu dugu Han Hemen-Basque Global Network , euskal komunitate globala eraikitzen laguntzeko.

Horren harira, 2021. urteko euskal diasporaren egunean, Urkullu lehendakariak Han Hemen ekimena aurkeztu zuen: «As a new space for relationships, interaction, and collaboration, encompassing diverse experiences and placing people». Calzadak (2024) Han Hemen paradiploiazia-sarearen azterketa egin zuen eta proiektu hau Basque Global Network-en trantsizio gisa aurkeztu zuen, honako etapak izanik: diseinua 2021ean, ezarpena 2022an, jarraipena 2023an eta ebaluazioa 2024an (Calzada, 2024, 788. or.).

3.3.5. Bizkaia Talent: identitatearen garrantzia

Euskal Gobernuaz gain, Bizkaiko Foru Aldundiak ere sortu zuen mundu osoan zehar dauden euskaldunekin sare bat. Sare honek identitate kulturala erabiltzen du jendea lotzeko, baina benetako helburua ekonomikoa da. Bizkaia Talent-eko zuzendariaren hitzetan «Nortasuna erabili business egiteko» / «identitatea negoziokoak sortzeko erabiltzen dugu» (Goizelaila, 2019).

Bizkaia Talent-en estatutuak Derion sinatu ziren 2013ko ekainaren 27an, sinatzaileen artan Imanol Pradales (Bizkaiko Foru Aldunditik) eta Alberto Tijero (IDOM ingeniari eta aholkularitza) egon ziren. Bizkaia Talent-ek euskal diasporaren hitza zentzu zabalean hartzen zuen eta bere parte izatera gonbidatzen zituen ez bakarrik euskal jatorria duten horiek, baita nolabait afinitatea sentitzen zuten horiek ere. Horretaz aparte, zuzendariaren hitzetan, sare honetan parte hartzen duten pertsonak «gizartearentzako traktore diren sektoreak izan daitezke».

Bizkaia Talent-en lan motak antolakuntzari emaitza positiboak lortzen laguntzen dio. Atzerrian lan egiten duten euskal herritarrak identifikatzen dituzte eta bertan bizi diren guztiak elkartzen dituzten tailerrak antolatzen dituzte. Biltzar horietan, Euskal Herriko garapen profesionalari eta negozioei buruzko informazio eguneratua eta interesgarria eskaintzen da. Parte-hartzaileek bilkuran zehar mugikorretarako aplikazio bat deskargatzen dute eta aurkezpenarekin etengabe elkarri eragiten diote, honako galdera hauek erantzunez: «Euskal Herrian ikusten al zara 5 urtetan?», «Zer da gehien faltan duzuna zure jaioterritik?» (egilearen esperientzia Bostonen, 2018ko otsaila).

Proiektu honi esker, euskal herritarrek elkar ezagutzen dute eta beren jatorrizko herriarekin lotura dute. Diasporarekin harremanetan egoteko eta kontaktuan mantentzeko modua da. Biltzar edo tailer horiek egin ondoren, bertan parte hartu dutenekin harremana izaten jarraitzen da era birtual baten.

3.3.6. Basque Diaspora Akademikoa: «Eman ta zabal zazu»

2015-2016an, Euskal Herriko Unibertsitateak Basque Diaspora Akademikoa sarearen sorrera bultzatu zuen.

Ez da lehen sare akademikoa. Asko daude. Baina hemengo helburua desberdina da neurri baten herri baten nortasunean oinarritzen delako (Goizelaila, 2019).

Kasu honetan ere, Bizkaia Talent-en bezala, gonbidatuek euskal jatorria izan dezakete, edo ez. Hau da, afinitatea izanda ere, nahikoa litzateke. Zenbait unibertsitatearen arteko lankidetzan oinarritzen diren sare akademiko asko daude, baita bi unibertsitatearen arteko ikasleen truke-programak ere, hala nola Erasmus Programa, SENECA edo SICUE edo EHU-AL. Sare akademiko hau ez zen unibertsitate-mailako truke-programa batean soilik oinarritzen, baizik eta herrialde baten identitatean. Lehen sinposioa 2016ko uztailan egin zen eta mundu osoko akademikoak bildu ziren. Esperientziak partekatu zituzten eta sare honen helburu estrategikoak identifikatu zituzten. Sarearen helburua zen ezagutzaren munduan ekarpenak egiten dituzten ikertzaileak eta adituak/ideologoak identifikatzea, eta

jarduera horiek Euskal Herriko sustraiekin lotzea. Webgunean dioten bezala, antolatu zuten sinposioaren helburua ondorengoa zen:

Sinposio honek euskal jatorridun edo Euskal Herriarekin lotura duten mundu osoko akademikoen nazioarteko sarearen oinarriak ezartzeko abiapuntua izan nahi du. Sare horren helburua parte hartzaileek komunean dituzten ezaugarriak partekatzea da eta, halaber, etorkizunean elkarlanean aritzeko loturak sendotzea; elkar hobeto ezagutzeko eta lankidetzak sustatzea. Era berean, nazioartean sakabanatuta dagoen ikerkuntza, pentsamendua eta kultura identifikatzea eta Euskal Herrian dituzten sustraiekin lotzea ditu xede ekimen honek (Euskal Diaspora Akademikoaren Sarea, webgunea)

Sinposio hori egin zenetik sare honek ez du bestelako ekintzarik egin. Horretan soilik gelditu zen.

4. Eztabaida eta ondorioak

Komunikazioak eta sareek berebiziko garrantzia izan dute Euskal Herriaren historian eta itsasoaren alde batean zein bestean daudenak batzeko eta identitate bera ulertzeko ezinbestekoak izan dira. Gaur egun ezin daiteke Euskal Herria ulertu sare hauek parte diren pertsonak kontuan izan gabe. Sare hauei esker Euskal Herriak loturak lortu ditu munduaren hainbat txokotan eta hori, hein handi batean, kanpoan bizi diren euskaldunen eta euskal norbanakoaren arteko harremanei esker izan da. Euskal Herria eraikitzekeko prozesuan, beste gauza batzuen artean, atzerriko unibertsitateekin akordioak lortzea, enprekin hitzarmenak sinatzea eta kultura mugaz gaindi hedatzea klabe izan dira. Diasporako sareek jatorrizko herrialdearen diplomazia publikoan eragina dutela ikusi ahal izan da.

Lanean ikusi ahal izan den bezala, sare horiek, era organiko batean (behetik gora) edota instituzioen eskutik (goitik behera) sortu dira.

Alde batetik, era organiko batean sortu diren sareek fruitu aberasgarriak eman dituztela ikusi ahal izan da, modu natural batean sortutako harremanetatik harreman transnazionalak sortu direlako, eta, beraz, ezinbestekoa da sare horien arrakasta aipatzea. Horren adibide dira, adibidez, esan bezala, harreman haueetatik sortu diren unibertsitateen arteko loturak, enpresen arteko hitzarmenak edota talde kulturalen arteko lankidetzak.

Elkarteen edo instituzioen eskutik sortu diren sareen azterketa egitean, beharrezkoa da sarea sortu den momentua eta helburua aztertzea. Internet eta web bidezko konexioa iritsi zirenean, Euskosare moduko sare batek laguntza eman diezaiokeen Euskal Herritik kanpo bizi zen euskaldun bati. Online komunitate horrek garai horretan hain eskuragarri ez zeuden informazio, produktu eta zerbitzuak ematen zituen. Pentsamendua sarearen kasuan ere, hausnarketa-espazio bat lortzea zen helburu, eta lortu zen. Egun oraindik ere, horren harira sortu ziren harremanek aktibo dira eta. Bizkaia Talent-ek finantzaketa pribatu bat du, oso helburu zehatz bat eta elikatze konstantean dago, eta horrek erakusten du sare bat aurrera eramateko beharrezko puntuak zeintzuk diren. Gainera, kasu honetan ere,

ekintza ugari egiten dira, horretara propio dedikatutako langileak ditu, eta interes berezi bat dago Bizkaiko Diputazioaren eta enpresa pribatuen eskutik.

Beste sare batzuen kasuan, ordea, emaitzak ez dira hain era argian ulertu. Basque Global Network sarea sortu eta desagertu egin zen, eta horren ondoren Han Hemen sarea sortu zen. Sare horiek mundu ezin konektatuago baten sortu dira, non, kanpoan bizi den edozein euskaldunek aukera daukan Euskal Herriko albistegietera, produktuetara, zerbitzuetara... sartzeko. Horrela, kasurako, BGNren erabiltzaile kopurua oso baxua zen, eta kanpoan bizi ziren euskaldun oso gutxik ezagutu eta erabili zuten. Han Hemen sarearen emaitzak oraindik ikusteke daude.

5. Bibliografia

- Aikins, K., & White, N. (2011). *Global diaspora strategies toolkit*. Impress Printing Works. <https://thenetworkinginstitute.com/wp-content/uploads/2016/02/Diaspora-Toolkit-Book.pdf>
- Bellotti, E. (2014). *Qualitative networks: mixed methods in sociological research*. Routledge.
- Bieter, J.P. (1994). *Basques, basque-americans, american-basques: Three generations in Boise, Idaho*. Thesis dissertation, Boise State University.
- Bieter, J., & Bieter, M. (2003). *An enduring legacy: The story of basques in idaho*. University of Nevada Press.
- Brubaker, R. (2000). *Accidental diasporas and external «homelands» in central and eastern europe: Past and present*. IHS Political Science Series 71, October 2000. https://aei.pitt.edu/32402/1/1208853582_pw_71.pdf
- Brubaker, R. (2005). The 'diaspora' diaspora. *Ethnic and Racial Studies*, 28(1), 1-19. <https://www.tandfonline.com/doi/epdf/10.1080/0141987042000289997?needAccess=true>
- Butler, K.D. (2001). Defining diaspora, refining a discourse. *Diaspora: a journal of transnational studies*, 10(2), 189-219. <https://muse.jhu.edu/article/388942>
- Calzada, I. (2024). Blockchain-driven digital nomadism in the Basque e-Diaspora. *Globalizations*, 21(5), 777-802. <https://www.tandfonline.com/doi/epdf/10.1080/14747731.2023.2271216?needAccess=true>
- Clifford, J. (1994). Diasporas. *Cultural Anthropology*, 9(3), 302-338. <https://anthrosource.onlinelibrary.wiley.com/doi/abs/10.1525/can.1994.9.3.02a00040>
- Cohen, R. (1996). Diasporas and the nation-state: from victims to challengers. *International affairs*, 72(3), 507-520. <https://academic.oup.com/ia/article/72/3/507/2471481>
- Cruset, M.E. (2008). Para-diplomacia y diáspora: el tema de las asociaciones, liderazgo y toma de decisiones. *IV Congreso de Relaciones Internacionales (La Plata, 2008)*. <https://sedici.unlp.edu.ar/handle/10915/40680>
- Elo, M., Minto-Coy, I., Silva, S.C.E., & Zhang, X. (2020). Diaspora networks in international marketing: how do ethnic products diffuse to foreign markets? *European Journal of International Management*, 14(4), 693-729. <https://www.inderscienceonline.com/doi/abs/10.1504/EJIM.2020.107606>
- Eusko Jaurlaritz (2000). *Euskadi Munduan eraikitzen, Kanpoan diren Euskal Gizataldeen Mundu Batzarra*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritz (2003). *Aurrera goaz, Kanpoan diren Euskal Gizataldeen Mundu Batzarra*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritz (2008). *Zubigintzan, Kanpoan diren Euskal Gizataldeen Mundu Batzarra*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

- Georgiou, M. (2006). *Diaspora, identity and the media: Diasporic transnationalism and mediated spatialities*. New York: Hampton Press.
- Gilboa, E. (2001). Diplomacy in the media age: three models of uses and effects. *Diplomacy & Statecraft*, 12(2), 1-28. <http://www.tandfonline.com/doi/abs/10.1080/09592290108406201>
- Goizelaia, M. (2019). Diasporak nazioarteko harremanetan: Komunikazioa eta harreman transnazionalak euskal herriaren eta estatu batuetan diren euskaldunen artean. Doctoral Dissertation, Euskal Herriko Unibertsitatea. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/42440/TESIS_GOIRIZELAIA_ALTUNA_MAIALEN.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Goizelaia, M., & Iturregui, L. (2018). From cultural showcases to public diplomacy agents: Basque-American festivals in the United States. *Diaspora Studies*, 1-17.
- Ho, E.L., & Mcconnell, F. (2017). Conceptualizing 'diaspora diplomacy' territory and populations betwixt the domestic and foreign. *Progress in Human Geography*, 0309132517740217. <https://ora.ox.ac.uk/objects/uuid:8f547e12-d8f2-424d-9c15-4100e192df7c/files/m404210b9b36f10e18377b3e1845e5d63>
- Hollstein, B. (2011). Qualitative approaches. *The SAGE handbook of social network analysis*, 404-416. <https://chooser.crossref.org/?doi=10.4135%2F9781446294413.n27>
- Ionescu, D. (2006). *Engaging diasporas as development partners for home and destination countries: Challenges for policymakers*. International Organization for Migration Geneva. <https://www.iom.int/sites/g/files/tmzbd12616/files/2018-07/MRS26.pdf>
- Karim, K.H. (2003). *The media of diaspora*. Routledge. <https://www.taylorfrancis.com/books/edit/10.4324/9780203380642/media-diaspora-karim>
- Kanpoko etxe berria: Emigración vasca a América, S. XIX-XX = Home away from home I* (2001). Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira Museoa.
- Kenny, K. (2013). *Diaspora: A very short introduction*. Oxford University Press.
- Kennedy, L. (Argtz.) (2022). *Routledge international handbook of diaspora diplomacy*. Taylor & Francis.
- Kuznetsov, Y. (2006). *Diaspora networks and the international migration of skills: How countries can draw on their talent abroad*. World Bank Publications.
- Levitt, P. (2001). *The transnational villagers*. University of California Press.
- Menjívar, C. (2000). *Fragmented ties: Salvadoran immigrant networks in America*. University of California Press.
- Meyer, J.B., & Brown, M. (1999). *Scientific diasporas: A new approach to the brain drain*. Management of Social Transformations (MOST) Programme. <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000116330>
- Mignaburu, M., & Legarreta, J. (2016). *Somos vasco-argentinos. recuperación de la memoria histórica*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/libro?codigo=769075>
- Newland, K., & Plaza, S. (2013). *What we know about diasporas and economic development*. Migration Policy Institute. <https://www.migrationpolicy.org/sites/default/files/publications/Diasporas-EconomicDevelopment.pdf>
- Noy, J. (2006). Una diplomacia pública para España. *Real Instituto Elcano, Imagen Exterior de España y Opinión Pública*, 11, uztaila. <https://media.realinstitutoelcano.org/wp-content/uploads/2021/12/memoria-anual-elcano-2006.pdf>
- Noya, J. (2006). The symbolic power of nations. *Place branding*, 2(1), 53-67.
- Noya, J. (2006). Inmigración y diplomacia pública. *Boletín Elcano*, (86), 5. <https://media.realinstitutoelcano.org/wp-content/uploads/2021/12/memoria-anual-elcano-2006.pdf>

- Nye, J.S. (2008). *Soft power: the means to success in world politics* (New York: Public Affairs, 2004).
- Oiarzabal de Cuadra, A.M., & Oiarzabal de Cuadra, P.J. (2005). *La identidad vasca en el mundo: Narrativas sobre identidad más allá de las fronteras*. Erroteta. https://www.researchgate.net/publication/318795189_La_Identidad_Vasca_en_el_Mundo_Narrativas_sobre_Identidad_mas_alla_de_Fronteras#fullTextFileContent
- Oiarzabal, P.J. (2005). *Basque Ethno-diasporas and Transnational Spaces in the Nineteenth-Century America*.
- Oiarzabala, P., Coles, K., & Tracy, A. (Argtz.) (2007). *A Candle in the Night: Basque Studies at the University of Nevada: 1967-2007*. University of Nevada Press.
- Olabuénaga, J.I. (1996). El diseño cualitativo. *Metodología de la investigación cualitativa*. Universidad de Deusto, 64.
- Ponzanesi, S. (2020). Digital diasporas: Postcoloniality, media and affect. *Interventions*, 22(8), 977-993. <https://www.tandfonline.com/doi/pdf/10.1080/1369801X.2020.1718537>
- Rana, K.S. (2009). India's Diaspora Diplomacy. *The Hague journal of diplomacy*, 4(3), 361-372. <https://kishanrana.diplomacy.edu/wp-content/uploads/2020/08/HJD-Diaspora-Oct09.pdf>
- Rana, K.S. (2014). Diaspora diplomacy and public diplomacy. In *Relational, networked and collaborative approaches to public diplomacy* (70-85. or.). Routledge.
- Ray, N.M., & Bieter, J.P. (2015). 'It broadens your view of being Basque': identity through history, branding, and cultural policy. *International Journal of Cultural Policy*, 21(3), 241-257. https://scholarworks.boisestate.edu/cgi/viewcontent.cgi?article=1040&context=marketing_facpubs
- Safran, W. (1999). Comparing diasporas: a review essay. *Diaspora: A Journal of Transnational Studies*, 8(3), 255-291. <https://muse.jhu.edu/article/444282>
- Safran, W. (2004). Deconstructing and comparing diasporas. In *Diaspora, identity and religion* (19-40. or.). Routledge. <https://www.taylorfrancis.com/chapters/edit/10.4324/9780203401057-4/deconstructing-comparing-diasporas-william-safran>
- Schiller, N.G., Basch, L., & Blanc, C.S. (1995). From immigrant to transmigrant: Theorizing transnational migration. *Anthropological quarterly*, 48-63. <https://www.jstor.org/stable/3317464?origin=crossref>
- Sheffer (2003). 9. or. in Brubaker, R. (2005). The 'diaspora'diaspora. *Ethnic and Racial Studies*, 28(1), 1-19. <https://www.tandfonline.com/doi/full/10.1080/014198704200289997>
- Toticaguena, G.P. (2000). *Comparing the Basque Diaspora: Ethnonationalism, Transnationalism and Identity Maintenance in Argentina, AUStalia, Belgium, Peru, the United States of America, and Uruguay*. Thesis dissertation. London School of Economics. <https://core.ac.uk/download/pdf/46518355.pdf>
- Tötöylan, K. (2012); Diasporas Studies. Past, present and promise. *Working Papers*. International Migration Institute; University of Oxford, 8. or. <https://www.migrationinstitute.org/publications/wp-55-12>
- Vertovec, S. (1994). Multicultural, Multi-Asian, Multi-Muslim leicester: Dimensions of social complexity, ethnic organization and local government interface. *Innovation: The European Journal of Social Science Research*, 7(3), 259-276.
- Vertovec, S. (2000). *The hindu diaspora: Comparative patterns*. Routledge.
- Vertovec, S. (2009). *Transnationalism*. Routledge Vertovec, 1999. https://dl1.cuni.cz/pluginfile.php/1828477/mod_resource/content/1/Vertovec_2009_Transnationalism.pdf

